

## **2 020-21 ikasturteko JANGELAKO ARAUTEGIA**

1. Goizeko klaseak bukatutakoan (14:00ean) **lehenengo eta bigarren** mailako ikasleak jangelara jaitsiko dira ordenean. **Hirugarren eta laugarren mailakoak** patiora irtengo dira zuzenean, han hainbat zaintzaile egongo dira beraiekin. Denak poliki, garrasirik egin gabe, lasaitasunez eta presarik gabe joango dira. Bazkaltzen ari direnak bukatutakoan patiora aterako dira, eta 14:35ean sartuko dira bigarren txandakoak.
2. Behin jangelan sarturik, ikasleek **jarrera egokia** azalduko dute:
  - ✓ Ahotsaren tonua kontrolatu.
  - ✓ Jangelatik lasai ibili.
  - ✓ Bertako tresnak errespetatu, beraiekin jolastu gabe.
  - ✓ Lurra garbia mantendu, zikinkeriarik bota gabe.
  - ✓ Begiraleak errespetatuz eta beraiek esandako eremuetan ibiliz, ikasgeletara igo gabe.
3. Ikasle bazkalkideak, goiz eta arratsaldeko eskola saioen arteko denboraldian, jangelako **begiraleen ardurapean** egongo dira.
4. **Ezin** izango dute instalazioetatik **atera**, baldin eta begiraleek baimena ematen ez dieten edota, aurretik **idatziz** emanda, etxeko baimenaz. Bazkaldu aurretik eta ondoren, ikasleak **finkaturiko eremuetan ibiliko** dira, ikasgeletara igo gabe eta aurreko ateen inguruan ibili gabe.
5. Astero mahai bakoitzean **arduradunak** izendatuko dira ogi-ontzia eta pitxarra jasotzeko. Bakoitzak bukatutakoan bere platerak, mahai-tresnak eta edalontzia jasoko du dagokion lekuan eta moduan utziz. **Basoak** karrotxoetan kokatuko dira ordenean, **atzeko aldetik hasita eta pilatu gabe**. **Pitxarrak** beheko apaletan kokatuko dira. **Platerak**, hutsik eta ongi pilatuta, eta **mahai-tresnak** sukaldeko mostradorean. **Soberakinak** ongi bereizi behar dira: Hondar organikoak kubo batean eta plastikok beste batean.
6. Ikasleren batek plateraren bat **sarritan jango ez balu**, mahaiko begirale arduradunak **eguneroko kuadernoan apuntatuko du** eta jangelako arduradunek ikaslearekin hitz egin ondoren, familiarekin aztertuko dituzte hartu beharreko neurriak. Bakoitzak jaten ez duena **norberak botako du** dagokion ontzian, beti ere mahaiko begirale arduradunari abisatu ondoren.
7. Jangelatik **ezin da janaririk atera**.
8. Mediku espezialistaren agiririk gabe **ez da menuan inongo aldaketarik onartuko**.
9. Begiraleek **eguneroko koadernoan** aipamen bereziak apuntatuko dituzte, eta jangelako **arduradunek balizko neurriak** hartuko dituzte kasuz kasu aztertu ondoren.
10. Norbaitek **arau hauek beteko ez balitu**, ikaslea jangelatik baja emateko aukera izango du ikastetxeak. Hori gertatu baino lehen, ikaslearekin hitz egingo da, arazoa konpontzeko asmotan, eta etxera abisatuko da.

### **OHARRAK:**

**Kobranta zortzi kuotatan egingo da eta hilaren hasieran pasako da** horretarako jaso dugun kontu korrontean (iraila eta ekainean ez da kuotarik pasako eta urritik maiatza bitarteko kuotatan banatuta kobratuko da dagokion kopurua) **Aurreko ikasturtean beka jaso zutenek** ez dute hasieran ezer ordaindu behar. Aurten ez ematekotan, bere garaian ordaindu beharko dute dena. **Bekadun berriei**, beka jaso ahala, ordaindutako dirua bueltatuko zaie. **Egunen batean** gelditzekotan **5,20 €** ordaindu beharko da.

Irun, 2021ko urtarrilaren 14a.

JANGELAKO ARDURADUNAK- AITOR IRIONDO eta PILAR SANCHEZ .